

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

MIGUEL JAVIER RECALDE GOLDARAZ
ASIER ELIZALDE ZUBILLAGA
TEODORO OTAMENDI ARTOLA
YOLANDA AREITIO OYARBIDE
IGOR OTERMIN EGUIA

BERTARATU EZ DIRENAK

ANDER ARRAZTIO SARALEGUI
JOSEBA ESKAMENDI IRIARTE

IDAZKARIA

Joanes Aleman Olló

Beteluko Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2015eko Ekainaren 13an, goizeko zazpi eta erdiak direlarik, joan den maiatzaren 24ko hauteskundeetan hautatuak izan diren eta ondoren adierazten diren zinegotziak biltzen dira, Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1.985 Lege Organikoaren 195 artikuluan ezarritakoa betez, eta Udala eratzeko bilkura burutzeko

Miguel Javier Recalde Goldaraz, Asier Elizalde Zubillaga, Yolanda Areitio Oyarbide, Teodoro Otamendi Artola eta Igor Otermin Eguia Zinegotziek, Toki Araubideko Oinarri Legearen 75.7 artikulorekin bat, alde aurretik, beren nortasuna egiaztatu eta bateraezintasun arrazoien, jardueren eta ondare ondasunen aitortpena egin dute, Korporaziokideen interes Erregistroan inskribatzearen ondorioetarako.

ADINEKO MAHAIA ERATZEA

Bilkura irekia deklaratu da, eta Hauteskundeetako Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1.985 Lege Organikoaren 195.2 artikulorekin arabera, bertaratutako zinegotzietan zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi hoiek mahaia osa dezaten, udal idazkariarekin batera. Beraz, erabaki da adineko mahaia era honetan osatzea:

Zinegotzi zaharrena, Teodoro Otamendi Artola, adineko mahaiako lehendakaria

Zinegotzi gazteena, Igor Otermin Eguia

Adineko mahaiako Idazkaria, Joanes Aleman Olló

Adineko Mahaiak zinegotzien egiaztagutunak aztertu ditu, beraien egokitasuna baieztatuz.

Jarraian, zinegotzien gehiengo osoa osoko bilkuran dagoenez, adineko mahaiak LEGEZ ERATUTZAT JOTZEN DU KORPORAZIO berria. Hona hemen zinegotzien zerrenda:

TEODORO OTAMENDI ARTOLA
ANDER ARRAZTIO SARALEGUI
YOLANDA AREITIO OYARBIDE
JOSEBA ESKAMENDI IRIARTE
ASIER ELIZALDE ZUBILLAGA
MIGUEL JAVIER RECALDE GOLDARAZ
IGOR OTERMIN EGUIA

Honen ondoren, bertaratutako zinegotziek banaka banaka, zin egin dute / hitza eman dute, legeak hala behartuta, "Karguak dakartzan betebeharrak jarraituko dituztela, Erregeari leialtasuna erakutsiz eta Estatuko Oinarrizko Araudia, Konstituzioa, bete eta betearaziko dutela" eta beraien kargua hartu dute.

Jarraian, idazkariak Beteluko Udalaren kontu korronteen saldoen berri eta udal ondarearen inbentarioaren berri eman dio Udalbatzari, zinegotziek azter dezaten:

Korporazio berria jakinen gainean gelditu da.

ALKATEAREN HAUTAKETA

Ondoren, Alkatea hautatzeari ekin zaio, horretarako, aipatutako ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak bere 196 artikuluan ezarritakoari jarraiki, alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazten dira:

- "Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai*
- Lehen bozketan, zinegotzi guztien (bertaratu gabeak barne) gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate*
- Horrela gertatzen ez bada, udal hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate*
- Berdinketa balego zerrenda bat baino gehiagoren artean, zozketaz ateratzen den zerrendako buru den zinegotzia izango da alkatea".*

Horrela bada, MIGUEL JAVIER RECALDE GOLDARAZ Jauna (ARBIDE TALDEA Taldekoa) zerrendaburu izanik, isilpeko bozketari ekin zaio, eta hona hemen lortutako botuen emaitza:

MIGUEL JAVIER RECALDE GODARAZ: Zinegotziak 5 boto

Bozketak erakusten duenez, **MIGUEL JAVIER RECALDE GOLDARAZ Jauna da Alkate**, bozketan gehiengo osoa lortu duelarik

Ondoren, MIGUEL JAVIER RECALDE GOLDARAZ Jaunak onartu egin du alkate izatea. Horrela izanik, Korporazioa aurrean duela, zin egin / hitza eman du, legeak hala behartuta “Karguak dakartzan betebeharrak jarraituko dituela, Erregeari leialtasuna erakutsiz eta Estatuko Oinarrizko Araudia, Konstituzioa, bete eta betearaziko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin”. Horrenbestez, MIGUEL JAVIER RECALDE GOLDARAZ Jaunak, hartu egiten du Alkate kargua.

Goizeko zortziak direlarik, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.